



PRENTSA ARETOA | AGENDA | FOTOTEKA | EITB TALDEA | PROGRAMAZIOA | KONTAKTUA | Orria entzun Leer en Castellano Inprimatu

PRENTSA ARETOA - EITBPODKAST

"19 Kamera", Touré Detektibearen sagako lehen atala audio-liburu bilakatuta, EITBPodkast plataforman

EITB MEDIA

Publikatuta: 2024/04/09 13:11 (UTC+2) Azken eguneratzea: 2024/04/09 16:05 (UTC+2)

Ondoren "612 Euro" eta "Hutsaren itzalak" etorriko dira. EITB eta Erein argitaletxearen elkarlanaren emaitza da audio-liburu sorta, eta Iñaki Beraetxe aktore eta bikoiztaile ezagunak jarri dio ahotsa.



Partekatu 1

ALBISTEAK (1)

"Touré Detektibea" telesaila ikusgai dago PRIMERAN plataforman

BIDEOAK (1)



Jon Arretxeren Touré eleberrri sagako "19 Kamera" audioliburuaz mintzatzeko hitzordua hedabideekin

INFORMAZIO GEHIAGO (2)

- Entzun "19 Kamera"
- EITBPodkast

EITB eta Erein argitaletxearen eskutik, **Jon Arretxe** idazleak sortutako **Touré detektibearen abenturak** biltzen dituen audio-liburu sortaren lehen atala, **"19 Kamera"** dago entzungai gaurtik **EITBPodkast** atarian. Arretxek sortutako pertsonaiaren abenturak orain hilabete batzuk **PRIMERAN** streaming plataforman estreinatutako "Touré Detektibea" telesail arrakastatsuen oinarria izan ziren. Orain, urrats bat gehiago eman da eta EITBPodkasten entzungai izango dira **audio-liburu** gisa, eitb.eus/touresaga helbidean. On Timek ekoiztutako audio-liburuan, **Iñaki Beraetxe** aktore eta bikoiztaile ezagunak jarri du ahotsa.

Touré, egoera irregularrean dagoen etorkin afrikarra da. Iragarle gisa magiaren arlo guztietan bere zerbitzuak eskaintzen ditu. Bizilagun afrikarrentzat agurgarria da, emakume zurientzat desiragarria eta polizientzat mespretxagarria. Biziraupen-senak bultzatuta, detektibe inprobisatu hasiko da. Patuak eraman du Bilboko gizartearen behe mailarik apalenarekin bezala goi mailako jende finenekin erlazionatzen.



Aurkezpena astearte honetan egin da, Bilboko Sanfrantsisko auzoko Almodobar tabernan. Bertan izan dira Ontime ekoiztetxeko Joxe Felipe Auzmendi; Gari Arzalluz, Erein argitaletxeko kudeatzailea; Maite Gofri, EITBko Digital eta Audioko zuzendaria; eta Jon Arretxe idazlea.

"19 Kamera", sagako lehen audio-liburua

Touré sagaren aurreneko audio-liburua da "19 Kamera", Jon Arretxek Touré detektibeari eskainitako sagaren aurrenekoa. **Bilboko San Frantzisko auzoan kokatzen da trama.** Hemeretzi kamerek kontrolatzen dituzte Bilbon San Frantzisko auzoko jendearen ibilerak eta bertan gauzatzen dira EITBPodkastek eskaintzen dizun eduki honetako gertakariak. Trama paralelo batzuek ere badira, umorezkoak eta gordinak audio-liburu beltz honetan: Palankako klub bateko prezio susmagarriak, trafikatzailen arteko istiluak, adin txikiko prostituta baten desagertzea, kaputxadun talde baten jipoi eta hilketak... Dena dela, Touré da beti ardatza.

"19 Kamera" izenekoaren ondoren, "612 Euro" eta "Hutsaren itzalak" audio-liburuak maiatza eta ekainean izango dira, hurrenez-hurren, entzuteko moduan.

HAU ZURE INTERESEKOA BADA, BALITEKE BESTE GAI HAUEK ERE IZATEA
Bilbo gaur | Kultur albisteak 2024 | Euskal literaturaren albisteak

TELEBISTA:	IRRATIA:	ALBISTEAK:	KIROLAK:	KULTURA:	BIDEO MULTIMEDIA	GAZTEA
Programazioa	Euskadi Irratia	Politika	Futbola	Musika	Bideoak	3 KLUBA
Telebista Programak	Radio Euskadi	EAE-ko Hauteskundeak	Txirindularitza	Zinema	Argazkiak	EGURALDIA
Festival zuzenean	Radio Vitoria	Kataluniako Hauteskundeak	Gabarra zuzenean	Literatura	Audioak	TRAFIKOA
Bideoak	Gaztea	Ekonomia	Pilota	Artea		HAUTESKUNDEAK
	EITB Musika	Gizartea	Surfa	Bertsolaritza		ZOKKETAK DOAN
	Programazioa	Mundua	Arrauna	Gastronomia		LOTERIA
	Irrati programak	Jendea	Motorra	Euskara		PARTE HARTU
	EITB Euskal kantak	Bitxikeriak	kirol gehiago	Artxipelagoa Bideojokoa		GAI INTERESGARRIAK
		Teknologia	Futbol saikapenak	Itxaso Marea bizietan		HERRIAK ETA HIRIAK
			Saskibalo saikapenak			BLOGAK TEMATIKOAK
			Kirolak zuzenean			NOLA IKUSI ETA ENTZUN EITB
						PODKAST
						PRENTSA ARETOA
						RSS

